
Errefuxiatuek pairatzen duten krisi humanitarioa: Eusko Jaurlaritzaren 2019ko jarduera-memoria eta 2020rako helburuak

2020ko otsailaren 12a

Euskadi, auzolana, bien común

I. 2019ko memoria laburra

Eusko Jaurlaritzaren hamar jarduera nagusiak errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari eta migrazio-erronka berriei aurre egiteko

II. 2020ko helburu nagusiak

Eusko Jaurlaritzaren hamar helburu nagusiak, errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari eta migrazio-erronka berriei aurre egiteko. Helburu nagusia: politiken koherentzia eta erantzun osoa

I. Eranskina. Memoria 2019

Errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak egindako jarduerari buruzko 2019ko memoria

II. Eranskina. Helburuak 2020

Alor horretako politika publikoak kudeatzeko 2020rako jarritako helburuak

I.

2019ko memoria laburra

Eusko Jaurlaritzaren hamar
jarduera nagusiak errefuxiatuek
bizi duten krisi humanitarioari
eta migrazio-erronka berriei
aurre egiteko

1. Auzolana I esperientzia pilotua ezartzea

2019an, Auzolana Esperientzia ezartzen aurrera egin dugu EAEko sei udalerritan. Gogoan izan beharreako da CEAR Euskadiren, Gurutze Gorriaren eta MPDLren lankidetzak jasotzen dugula esperientzia honetan. Abenduan, Harrera Eredu berri baterako ondorioen eta gomendioen txostenaren aurrerapen bat aurkeztu zen, esperientzian ikasitakoa aintzat hartuta.

2. Babes Komunitarioko Programa pilotua, Auzolana II, ezartzea

Ekainaren 20an sinatu zen formalki lankidetzak-hitzarmena ACNUR, Cáritas Euskadi, Euskal Autonomia Erkidegoko Jesuiten Plataforma, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Euskadin babes komunitarioko proiektu pilotu bat ezartzeko. Proiektu pilotua martxoaren 26an jarri zen dagoeneko abian, jatorri siriarreko 29 errefuxiatu Euskadira iritsi zirenean, Jordaniatik iritsita. Euskadira iristean, tokiko bost boluntario-talde arduratu dira harrera egiteaz eta instalatzeaz honako bost udalerritan: Bilbao, Arrigorriaga, Portugalete, Andoain eta Gasteiz.

3. Bost dei humanitariori erantzun zaie; kostua: 1.150.000 euro

Larrialdi humanitarioko 5 dei erantzun zaie 2019an, eta 1.150.000 euroko aurrekontua izan dute deialdi horiek, guztira. Martxoaren 20an onartu zuen Gobernu Kontseiluak Itsas Salbamendu Humanitarioari laguntzea. Ekainaren 12an, UNICEF Serbiarako laguntza onartu zuen, eta uztailaren 23an ACNUR eta Save The Children elkarteetarako, Balkanetako ibilbidean doazen ume migratzaileak babesteko egiten ari diren lanean laguntzeko. Azkenik, urriaren 1ean Zaporeak elkarteari laguntza ematea onartu zuen, Greziako errefuxiatuei jaten emateko proiektua bultzatzeko.

4. AitaMari Zubia - #Maydayterraneo proiekturako laguntza, Itsas Salbamendu Humanitariorako

Itsas Salbamendu Humanitarioko AitaMari Zubia - #Maydayterraneo proiektua babestu dugula nabarmendu nahi dugu, oso garrantzitsua iruditzen zaigulako. Ekainaren 20an onetsi zen 350.000 euroko laguntzari esker, "Aita Mari" ontzia –José María Zubia Cigarán itsasgizonaren ohoretan jarritako izena– berri eta erreskaterako prestatu zen. Hainbat hilabetez itsasontzia eraberritu eta egokitu ondoren, eta beharrezko baimen guztiak izateko kudeaketa administratibo ugari egin ondoren, azaroaren 22an Aita Mari bere lehen misioa egin eta 78 lagun erreskatatu zituen.

5. SHARE proposamenaren aurkezpena

Abuztuaren 27an, Iñigo Urkullu lehendakariak honako proposamen honen xehetasunak aurkeztu zituen Vatikanon: "Europako estatu azpiko hainbat gobernuak sinatutako ekimen bat, errefuxiatuen eta egoera ahulenean dauden pertsona migratzaileen errealitateari denok elkar hartuta erantzuteko.

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, 2019an estatuz azpiko eta eskualdeetako gobernuen hiru bilera egin dira: lehena Bilbon otsailaren 27an, eta hurrengo biak Bruselan apirilaren 2an eta abenduaren 4an. Proposamenak estatuz azpiko 10 gobernuren atxikimendua eta konpromisoa du.

6. Lehen harrerako zentroak: Larraña Etxea eta Zuloaga Txiki

Otsailaren 28an jendaurrean aurkeztu zuten Oñatin irekitako lehen harrerako aterpetxea, Larraña Etxean. Herrian oso harrera ona izan du aterpetxeak, eta batez beste 85 pertsona hartu ditu. Era berean, 2019an beste aterpetxe bat ireki zuten Tolosan, Zuloaga Txiki izeneko. Aterpetxe hori egokitzen ari dira, eta 35 bat lagunentzako lekua izango du.

7. Migraziorako Euskal Itun Soziala

Azaroaren 30ean, lehendakari Iñigo Urkulluk, erakundeen eta euskal gizartearen ordezkariak zabalarekin batera, Migraziorako Euskal Itun Soziala aurkeztu zuen, "Jaso nahi genukeena eskaini" izenburupean.

8. 2019ko kontingentzia-plana

Ekainaren 3an aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak 2019ko Kontingentzia Plana, Euskadira joan-etorrian iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko. Planaren edukia Gurutze Gorriarekin adostu zen, eta hiru foru-aldundiekin eta Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Irungo udalekin batera taxutu zen. 2020ko urtarilaren 27an, prentsari aurkeztu zitzaion Irunen irekitako arreta-zentro berria, 100 lagunentzako edukiera duena. 2019. urtean, 4.244 laguni eman diote arreta.

9. Nazioarteko presentzia

2019. Urtean, Share Proposamena Europan bultzatzeaz gain, Eskualdeetako Batzordeak antolatutako bi mintegitan hartu du parte Eusko Jaurlaritzak, Auzolana I eta Auzolana II aurkezteko. Abenduaren 17an eta 18an aurkeztu genuen Babes Komunitarioko proiektua Genevan, ACNURek antolatu zuen Global Refugee Forum. Horrez gain, Integrazioaren aldeko Eskualde eta Hirien Europako Sareari lotu gatzaizkio, Eskualdeen Batzordea buru dugula.

10. Erakundearteko Mahai Soziala errotu dugu errefuxiatuen egoerari erantzuna emateko

Administrazioen eta gizarte-erakundeen arteko mahaia errotu dugu, Euskadira datozkigun errefuxiatuak hartzeko beharrezko koordinazioa mahaia horren bidez taxutzeko. 2019an lau aldiz bildu da mahaia: otsailan, maiatzean, irailean eta abenduan.

II.

2020ko helburu nagusiak

Eusko Jaurlaritzaren hamar helburu nagusiak, errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari eta migrazio-erronka berriei aurre egiteko. Helburu nagusia: politiken koherentzia eta erantzun osoa

1. Koordinazio-eremuak eta maila desberdinetako ekimenen koherentzia finkatzea

Administrazioek eta gizarte-erakundeek osatutako lan-mahaiei eustea eta indartzea, eremu aproposak direlako informazioa partekatzeko, esku hartzeak koordinatzeko eta politika koherenteei eta erantzun osoei bidea emango dieten denen arteko ekimen berriak garatzeko. Euskadiko, estatuko eta Europako beste erakundeekin burutzen dugun lan koordinatuari bultzada ematea.

2. Auzolana I eta Auzolana II esperientzia pilotuak inplementatzea

Auzolana I esperientzia ezartzen bukatuko dugu eta Auzolana II proposamena ezartzen jarraituko dugu, hitzarmenean jarrita dugunaren arabera. Esperientzia pilotuko bigarren urterako lehenetsunak identifikatuko ditugu. Proiektua hedatzen jarraituko dugu eta babes komunitarioko formularen bidez errefuxiatuak hartzeko beste era batzuk aztertuko ditugu.

3. Errefuxiatuak Hartu eta Integratzeko Euskal Eredua diseinatzea

Gizarte Segurantzza, Gizarteratze eta Migrazio Ministerioarekin eta harreraren eskumena duten euskal erakundeekin batera lan eginez, harrera- eta integrazio-eredu berri bat diseinatuko dugu Euskadin. Errefuxiatuak hartu eta integratzeko proiektu pilotua ezarriko dugu.

4. Migraziorako Euskal Itun Sozialaren berri eman eta atxikimenduak bilatu

Migraziorako Euskal Itun Soziala hedatu eta ahalik eta atxikimendu gehien lortzen saiatuko gara, itunak pluraltasun eta adostasun handia izango duela ziurtatzeko.

5. Babesik gabe dauden atzerriko ume eta gazteei laguntzeko lanaren koordinazioa sendotzea.

Programa hau aurkezten eta abian jartzen lagunduko dugu, hiru Aldundiekin, EUDELekin eta programa ezartzen parte hartzen duten Jaurlaritzako sailekin koordinatuta.

6. SHARE Proposamena Espainian eta European hedatu eta ezartzen laguntzea

SHARE Proposamena partekatzeko eta hedatzeko ekimenak burutuko ditugu, EBn migrazio-erronkari aurre egiteko erantzunkidetasun-printzipioa zeharka aplikatzeko mekanismoa delako.

7. Larrialdietan laguntzeko nazioartean izaten diren deiei erantzutea. Batez ere, Itsas Salbamendu Humanitarioaren Aita Mari - Maydayteraneo eta Zaporeak proiektuei laguntzen jarraitzea

Adi jarraituko dugu nazioarteko, Europako eta tokiko erakundeek deirik egingo balute ere, Mediterraneoko krisia esaten zaionari lotutako larrialdi humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko. Batez ere, Itsas Salbamendu Humanitaria eta Zaporeak euskal erakundeek egindako lanari lagunduko diogu.

8. Balkanetan egiten diren ekimen humanitarioak babestea batik bat, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrekin edo bidean doazenei erreparatuz batez ere

Batez ere ACNUR, Save The Children eta UNICEFekin lan egingo dugu, Balkanetako ekimen humanitarioei ematen zaien laguntza ardatzeko, arreta berezia jarrita bidaidetik gabeko umeei edo bidean doazen migratzaile adingabeei edo errefuxiatuei.

9. “Migrazio-erronka berriei erantzun osoa emateko Eusko Jaurlaritzaren Estrategiaren Egokitzapena” inplementatzea

Euskadiko migrazio-erronka berriei erantzun osoa emateko aurrera egitea. Horretarako, administrazioen eta gizarte-erakundeen arteko koordinazioa landuko da bereziki, bai eta Estatuko gainerakoarekin eta Europar Batasunarekin koordinatutako ekimenak ere. Bidean doazenentzako Kontingentzia Plana 2020 berri-tzen jardungo gara bereziki.

10. Aniztasunaren, migrazioaren eta nazioarteko babesaren arloko hezkuntza-ekimenak bultzatzea

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020ko Planeko 7. eta 8. ekimenak garatuko ditugu, “Aniztasunaren kudeaketa positibora” eta “Elkartasuna sustatzera” bideratuta daudenak hurrenez hurren, Bizikidetzaren Kultura eta Giza Eskubideak sustatzera bideratuta dauden guztiekin batera. Bereziki, bizikidetzako aniztasuna ezagutzeko eta horren pedagogia egiteko tokiko gidaren ereduaren proposamena egin eta zabalduko dugu.

I. eranskina.

Memoria 2019

Errefuxiatuek bizi duten krisi
humanitarioari aurre egiteko Eusko
Jaurlaritzak egindako jardueri
buruzko 2019ko memoria

2017ko azaroan, “Eusko Jaurlaritzaren esparru-dokumentua itxi zen, Mediterraneoan errefuxiatuek bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa modu partekatuan bideratzeko”.

Europako mugetan errefuxiatuek jasaten duten krisi humanitarioari erantzuteko estrategia oso bat jasotzen da dokumentu horretan, eta hiru parte ditu: oinarriak, esparrua eta jarduera-plana, eta jarduera-plan horrek, berriz, bost ardatz.

2019an lortu nahi genituen helburuak eta datorren 2020rako proposatu genituenak bost ardatz hauen inguruan egituratu ditugu:

1. Proposamen-ardatza

Harrera-sistemak eraldatzera eta hobetzera bideratutako proposamenak aurkeztea eta sustatzea da asmoa, Espainiako Gobernuari dagokionez batez ere.

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>1.1. Auzolana I proposamena garatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Auzolana I proposamena garatzen bukatzea, hitzarmenean jasotakoa kontuan hartuta. ·Jarraipen-txostenean jasotako hobetu beharreko lehenengo elementuak inplementatzen hastea. ·Esperientziari jarraipena egiten jarraitzea eta esperientziaren etengabeko ikasketarekin jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·2018ko urtarrilaren 15ean sinatu zen hitzarmena. ·2019an zehar, esperientzia pilotua 6 udalerritan ezartzen jarraitu dugu. ·Hainbat harreman izan ditugu eta jarraipen-bilera egin. ·Esperientziaren ondorioen eta azken gomendioen txostena egin dugu, Deustuko Unibertsitateak eta esperientziaren garapenean inplikaturako eragile batzuek egindako txostenak kontuan hartuta.
<p>1.2. Bisa humanitarioen bidea aktibatzeke proposamena sustatzen jarraitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Bisa humanitarioak aktibatzeke proposamenari ekiten jarraitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·La propuesta ha sido reiterada al Gobierno Español, tanto el actual como el anterior, en diferentes ocasiones.
<p>1.3. Jardunbide egokiak identifikatuta, beste proposamen batzuk aztertzea eta bultzatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Espainiako Gobernuarekin, ACNURekin, Cáritasekin eta Jesusen Konpainiarekin lankidetzahitzarmena sinatzea. ·Auzolana II esperientzia pilotua inplementatzen hastea. ·Indarguneak eta hobetzeko eremuak identifikatzeko prozesua dokumentatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Esperientzia bide onenean doa. Ekainaren 20an sinatu zen hitzarmena. ·Kanadako Gobernuaren eta Otawako Unibertsitateko bisita izan genuen otsailaren 19an. ·ACNURek eta Otawako unibertsitateak prestakuntza-ikastaro bat antolatu dute otsailaren 18rako eta 19rako. ·Harrera- eta integrazio-planak onartu ditugu. ·Martxoaren 26an iritsi ziren familiak. ·3 jarraipen-bilera egin ditugu. ·Kokaleku Planaren eta Jarraipen Txostenaren ereduak definitu eta adostu ditugu. ·Valentziako Generalitatearekin bilera egin dugu proiektuaren ingurukoak elkarrekin banatzeko. ·Irailaren 25ean ACNURek Espainian duen ordezkariak bisita egin zigun, eta topaketa izan genuen erakundeekin, babes-taldeekin eta familiekin. ·Esperientziaren aurkezpena egin genuen Bruselan (urriaren 21 eta 22an) eta Genevan (abenduaren 17 eta 18an).

2. Ardatz berritzailea

Harrera eta integrazioari dagokionez, euskal erakundeen eta gizarte-erakundeen eskumenekoak diren eremu eta gaiekin zerikusia duten berrikuntzak eta hobekuntzak proposatzera dago bideraturik.

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>2.1. Aurrea hartzea hobetzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Larraña Etxea proiektua finkatzea. ·Euskadin lehen harrerako egoera hobetzeko ekintzak egitea eta bultzatzea. ·Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren, autonomia erkidegoen eta toki-erakundearen artean sinatu den “Nazioarteko babesa eskatzen eta jasotzen duten pertsonentzako jardueren koordinazioa bermatzeko protokoloa” Euskadin inplementatzea garrantzitsua dela azpimarratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Larraña Etxea ondo funtzionatzen ari da. Bataz beste 85 lagun hartu ditu. Otsailaren 28an egin zitzaion jendaurreko aurkezpena. ·Tolosako harrera-zentro berria irekita dugu, Zuloaga Txiki, 35 pertsona gehiago hartzeko gaitasuna duena. ·Gainera, CEAR Euskadik lehen harrerako 210 plaza kudeatzen ditu, MINTRAMISsek finantzatuta, eta Ministerioarekin partekatutako kudeaketarako harrera-zentro berri bat ireki du, 60 plaza emateko. ·Ekainaren 3an, 2019ko Kontingentzia Plana aurkeztu zen, joanean Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko. Plana urte amaierara arte mantendu da. ·Autonomia-erkidegoak eta MINTRAMISS koordinatzeko lau bileratan izan gara, otsailaren 15ean, martxoaren 21an, irailaren 4an eta urriaren 29an.
<p>2.2. Harrera-Egokitzea fasea hobetzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Euskadin dauden harrera-lekuen jarraipena egitea aldiari behin. Kuantitatiboki, 2019an 525eko metatutako kopurura iristea espero da. ·Auzolanaren barruko 6 udalerritan eta Oñatin sortutako harrera-batzordeei laguntzea, eta Auzolana II esperientzia pilotua egingo den udalerrietan batzordeak sor daitezen bultzatzea. ·Sortzen diren harrera-batzordeetan tokiko boluntario-erakundeek ere parte har dezaten bultzatzea eta laguntzea. ·Elkarrekin bonu-dekretua aldatzea, errefuxiatuak edo nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egitearen, laguntzearen eta integraztearen arloan udalerriak eta tokiko boluntario-taldeak finantzatzeko aukera sartzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ·Euskadin dauden lehenengo faseko harrera-lekuen jarraipena egin da. Gaur egun irekita: 535 (29 babes komunitariokoak). Euskadin aurreikusitako egoitzako harrera-plazak gainditu dira 2019. urtean. ·Auzolana I programaren esparruan, harrera- eta integrazio-batzordeak sortzea bultzatu da 6 udalerritan, eta beste bat Oñatin, herrietako boluntario-elkarteekin koordinatuta. ·Bi kontratu kudeatu ditugu, bata Perualderekin eta bestea SOS Arrazakeriarekin, udalerrietan boluntarioen laguntza eta mentoring sozialeko ekimenak esploratzeko.

<p>2.3. Gizarteratzea-Autonomia fasea hobetzea</p> <p>·Koordinazio mahaiak finka daitezen bultzatzea eta horretan laguntzea, iragaitzako migratzaileak hartzeko.</p> <p>·Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak integratzeari dagokionez, sailarteko koordinazioa bultzatzen jarraitzea, jardunbide egokiak identifikatzea eta errepikatzea, eta osasun, hezkuntza, etxebizitza eta gizarteratzearen arloko oinarriko zerbitzuak koherenteak eta osagarriak izango direla bermatzea.</p>	<p>·La Mesa interinstitucional-Social se ha reunido en cuatro ocasiones: febrero, mayo septiembre y diciembre, y se ha consolidado como espacio de trabajo y coordinación en esa materia.</p> <p>·Hezkuntza, Osasun, Segurtasun eta Enplegu eta Gizarte Politiken sailekin batera egin da lan. Nabarmentzekoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> -DSBEa erreformatzeko ekimenei jarraipena egin zaie, nazioarteko babesa eskatzen dutenei eskatzen zaizkien errolda-agiri eta gainerako dokumentazioan aldaketa bat sartzeko. -Hezkuntza Sailarekin bildu gara berriz, batik bat, helduen hezkuntza iraunkorreko (HHI) zentroen egoeraz jarduteko (HHIetan erakutsiko den curriculumari buruzko dekretua izapidetzen ari da gaur egun). -Izapideak burutu ditugu Hezkuntza Sailarekin, asiloa eskatu dutenek eta errefuxiatuek aurten ere ez dezaten unibertsitateko tasarik ordaindu beharrik izan. -Ekainean, Arabako udal teknikariei zuzendutako prestakuntza-ikastaroa antolatu genuen: "Asiloa, errefuxiatuak eta nazioarteko babesa". -Herritartasunaren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren arloko 2018-2020 aldirako Jarduketa Plan berriari emandako onarpenari eta inplementazioari jarraipena egin zaio.
--	---

3. Ekintza humanitarioaren ardatza

Konpromiso proaktibo bat da, une bakoitzean premiazko inplikazio humanitarioa behar duten egoeren eta nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen jasaten dituzten bidegabekeriaren aurrean.

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>3.1. Larrialdi humanitarioko deiei erantzutea</p> <p>·Nazio Batuen edo nazioarteko zein Europako beste erakunde batzuen deiak babestea eta haiei erantzutea, Mediterraneoko krisiarekin erlazionatutako larrialdi humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko.</p>	<p>·ACNUR, UNICEF Serbia eta Save The Children elkarteetarako dirulaguntzak izapidetu ditugu, Balkanetako ibilbidean doazen ume migratzaileak babesteko egiten ari diren lanerako laguntza emateko.</p> <p>·Dirulaguntza onartu zaio Itsas Salbamendu Humanitarioari, eta bidelagun izango gaitu, bai erreskate-lanak egiteko behar diren baimenak lortzeko, bai azaroaren 21eko erreskatearen ondoren lotu beharreko denak lotzeko: portu segurua, lehorratzea eta abar.</p> <p>·Zaporeak erakundeari laguntza ematen jarraitu dugu Greziako errefuxiatuei laguntzeko egiten duen lanerako.</p>

<p>3.2. Esku-hartze humanitariorako gure ekimen-programa zehaztea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Balkanetan egiten diren ekimen humanitarioak lehenestea eta arreta haietan jartzea, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrengan edo iragaitzazko migratzaile adingabeengan edo errefuxiatuengan arreta berezia jarrita. ·Ekintza humanitarioaren arloan GLEAk laguntzen dituen eta arreta errefuxiatuengan edo bidaidetik gabeko edo iragaitzazko adingabeetan jartzen dute ekintzei jarraipena egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·UNICEF, ACNUR eta Save the Children elkarteek diruz lagundu dizkiegun ekimenak Balkanetan burutzen dituzten laguntza-lanetarako dira, han, migratzaileei, norbaitekin edo bakarrik dabiltzanei, laguntzen jarduten dira-eta. ·UNFPA proiektu bati agian laguntzeko hizketan jardun gara, Balkanetan bidean doazen emakumei arreta emateko, batez ere.
<p>3.3. Arreta berezia jartzea adingabeen inguruko erantzun espezifikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Ahulezia bereziko taldeei laguntzeko sailarteko taldean koordinazio lana egiten jarraitzea. ·Nagusiki migratzaile edo errefuxiatu adingabeei arreta ematera eta babestera bideratzen diren esku-hartze humanitarioak lehenestea. ·Marokon lanbide-heziketako esperientzia pilotu bat identifikatzea eta inplementatzea (GLEA). 	<ul style="list-style-type: none"> ·Hiru aldundiekin, GLEAekin, Enplegu eta Gizarte politiketako Sailarekin, Hezkuntza Sailarekin eta Segurtasun Sailarekin koordinatuta lan egiten jarraitzen dugu, MENAren egoerari erantzun egokia emateko. ·Dokumentu bat prestatu dugu MENA eta JENAen arloko lana koordinatzeko. ·Babestu diren 5 ekintza humanitarioko proiektuetatik 3k bidaidetik gabeko edo bidean doazen adingabeen babesean jartzen dute arreta. ·Marokora joan eta bigarren identifikazio-bileran prestatzen ari gara, 2018ko azaroan egindako bilerari segida eman nahian.

4. Prebentziozko ekintzaren ardatza

Bake, justizia eta berdintasun behar gehien duten herrialdeetan jarduten duten proiektuak babestea eta garatzea da; proiektu horiek prebentziozko erantzun eta erantzun eraldatzailea eduki behar dute, eta zuzeneko kooperazio eta kolaborazio politiken bidez gauzatzen dira.

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>4.1. Gatazken konponketa baketsua</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Prebentzioaren eta gatazken konponketaren arloan ekimen berriak arretaz aztertzea, eta, hala badagokio, babestea. 	<ul style="list-style-type: none"> ·DAGek (Dialogue and Advisory Group-ek) Libian eta Iraken garatutako esku-hartze baterako laguntza izapidetu dugu.
<p>4.2. Eskubide sozialak berreraikitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ·Osasunaren, hezkuntzaren, genero-berdintasunaren, erregistroaren, justiziaren, askatasunen, parte-hartzearen eta abarren arloko eskubide sozialak lekuan bertan berreraikitzeko aukera ematen duten proiektuak bultzatzen jarraitzea (GLEA). 	<ul style="list-style-type: none"> ·GLEA arlo horretako zenbait proiektu ari da babesten, bai hitzarmenen bidez, bai lankidetzarako edo ekintza humanitarioko proiektuei dirulaguntzak emanez.

5. Jarrera-ardatza

Bitan banatzen da: nazioartekoa, Eusko Jaurlaritzaren hitzak Europan eta nazioartean entzunaraztea, eta barnekoa, euskal gizartean bizikidetzakultura irekia sustatzea.

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>5.1. Barne-eragina</p> <ul style="list-style-type: none">·Migrazioaren, aniztasunaren eta nazioarteko babesaren arloko sentsibilizazio-foro, -jardunaldi edo -ekintzetan parte hartzea.·Aniztasunaren, migrazioaren eta nazioarteko babesaren arloko hezkuntza-ekimenak bultzatzea. <p>·Aniztasunari buruzko Tokiko Gidaren proposamena egitea eta hedatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none">·Otsailaren 14an 2018ko memoria eta 2019rako helburuak aurkeztu ziren.·Otsailaren 21ean Eskola Munduan izeneko modulu didaktikoa aurkeztu genuen, Giza Eskubideen inguruko Baliabide Pedagogikoen I. Nazioarteko Mintegian.·Larraña Etxea jendaurrean ezagutarazi genuen otsailaren 28an.·CIDOBek Madrilen antolatu zuen mintegian (“¿Está España en primera línea de acogida e integración?”) egon ginen martxoaren 5ean.·Ekainaren 2an CEAR Euskadik antolatutako Bilbao Refugio lasterketa solidarioan parte hartu genuen.·Ekainaren 3an, 2019ko Kontingentzia Plana aurkeztu genuen, bidean doazela Euskadira iristen diren migratzaileei arreta emateko.·Ikuspegik antolatutako “Asiloa eta babesa Europan eta Euskadin” izeneko jardunaldian parte hartu dugu, ekainaren 7an.·Gurutze Gorriak antolatutako “Orain hemen daudenez, gertuago behar zaituzte” kongresuan parte hartu dugu, irailaren 16an.·Ane Irazabalen “AWLAD Hesiak gainditu” dokumentalaren aurkezpena eta estreinaldia, Zinexit-en X. edizioaren barruan, azaroaren 28an.·Migraziorako Euskal Ituna aurkeztu genuen azaroaren 30ean.·Prest dago, 2020ko lehen seihilekoan aurkeztea aurreikusten da.

<p>5.2. Kanpo-ekintzaren eragina</p> <p>·Eusko Jaurlaritzak ACNURekin bat egitea, eta haren deiei babesa ematea, bai Europar Batasunak eta estatuetako gobernuek hartutako konpromisoak bete daitezela eskatzeko, bai Europan asilo eskubi-dea errespetatzeko berme-esparru bat egon dadila aldarrikatzeko.</p> <p>·Aniztasunaren, migrazioaren eta nazioarteko babesaren arloko Europako proiektu bat identifikatzea eta hartan parte hartzea.</p>	<p>·GRSiko eta ACNUReko arduradunak izan ditugu Euskadin, otsailaren 14an.</p> <p>·Hiru bilera egin ditugu, bat Bilbon, otsailaren 27an, eta besteak Bruselan, apirilaren 2an eta abenduaren 4an, autonomia-erkidego eta Europako eskualdeko gobernu batzuekin, SHARE ekimenaz jarduteko.</p> <p>·Maiatzaren 6an aurkeztu dugu jendaurrean SHARE ekimenak egindako aurrerabidea.</p> <p>·Integrazioari buruzko mintegi batean parte hartu dugu Bruselan, ekainaren 25ean, Eskualdeetako Batzordeak antolatuta, besteak beste.</p> <p>·Lehendakariak SHARE Proposamena aurkeztu du Vatikanon, abuztuaren 28an.</p> <p>·Share Network Conference: Expanding Resettlement across Europe konferentzian parte hartu dugu, Bruselan, urriaren 21ean eta 22an.</p> <p>·ACNURren Global Refugee Forum foroan parte hartzea. Genevan, abenduaren 17an eta 18an.</p> <p>·Integrazioaren aldeko Eskualde eta Hirien Europako Sareari lotu gatzazkio, Eskualdeen Batzordea buru dugula.</p> <p>·Eskualde kulturantzen Sareari lotu gatzazkio, Eskualdeen Batzordea eta Catalunyaeko Generalitatea buru ditugula.</p>
--	--

6. Zeharkako kudeaketa-ardatza

2019rako helburuak	2019ko memoria
<p>6.1. Erakundearteko Mahai Soziala finkatzea gai horretako koordinazio-gune izan dadin</p>	<p>·Erakundearteko Mahai Soziala gai horretako koordinazio-gune izateko errotu da. Lau aldiz bildu da mahaia: otsailean, maiatzean, irailean eta abenduan.</p>
<p>6.2. Beste erakunde batzuekin koordinazio estuan aritzea, hala nola Arartekoarekin eta Legebiltzarreko barne-taldearekin</p>	<p>·Barne-taldearekin landu diren zenbait agiri eta proposamen partekatu dira</p>

II. eranskina.

Helburuak 2020

Alor horretako politika publikoak
kudeatzeko 2020rako
jarritako helburuak

1. Proposamen-ardatza

Harrera-sistemak eraldatzera eta hobetzera bideratutako proposamenak aurkeztea eta sustatzea da asmoa, Espainiako Gobernuari dagokionez batez ere.

- Auzolana I esperientzia pilotua ixtea.
- Errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko euskal eredu baten diseinuan izandako esperientziak emandako ikasbide nagusiak ateratzea.
- Errefuxiatuak Euskadira iristeko bide seguruak ezartzeko esploratzen eta azpimarratzen jarraitzea.
- Auzolana II proposamena ezartzen bukatuko dugu, hitzarmenak zehaztutako nondik norakoak aintzat hartuta.
- 2020 urterako lehentasunak identifikatuko ditugu (esperientziaren bigarren urtea).
- Esperientzia sistematizatzen eta hortik ikasten jarraituko dugu.
- Babes Komunitarioko formula hedatu eta errefuxiatuak hartzeko zer beste era egon litekeen aztertuko dugu.
- SHARE Proposamena hedatu eta ezartzeko lan egingo dugu.
- Errefuxiatuak hartu eta integratzeko euskal eredu diseinatuko dugu.
- Harrera egiteko eta integratzeko proiektu pilotu bat proposatzea eta ezartzea Gizarte Segurantzaren, Gizarteratze eta Migrazio Ministerioarekin batera.

2. Ardatz berritzailea

Harrera eta integrazioari dagokionez, euskal erakundeen eta gizarte-erakundeen eskumenekoak diren eremu eta gaiekin zerikusia duten berrikuntzak eta hobekuntzak proposatzera dago bideraturik.

- Errefuxiatuei Euskadin hasierako harrera emateko dauden proiektuak eta zentroak errotu.
- Euskadin dauden harrera-lekuen jarraipena egitea aldiaren aldiaren. Euskadin 550 harrera-plaza eta 400 hasierako harrera-plaza edukitzeko aurreikuspena dugu.
- Euskadin migrazioak eragiten dituen erronka berrien aurrean erantzun integrala finkatzea, Enplegu eta Gizarte politiketako Sailarekin koordinatuta.
- 2020an bidean doazen pertsonak hartzeko kontingentzia-plana berritzea.
- Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak integratzeari dagokionez, sailarteko koordinazioa bultzatzen jarraitzea, jardunbide egokiak identifikatzea eta errepikatzea, eta osasun, hezkuntza, etxebizitza eta gizarteratzearen arloko oinarritzko zerbitzuak koherenteak eta osagarriak izango direla bermatzea.
- Sail, erakunde eta gizartearen arteko koordinazioa sendotzea, errefuxiatuak hartzeko eta integratze euskal eredu berria sortu aldera.

3. Ekintza humanitarioaren ardatza

Konpromiso proaktibo bat da, une bakoitzean premiazko inplikazio humanitarioa behar duten egoeren eta nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen jasaten dituzten bidegabekeriaren aurrean.

- Nazio Batuen eta nazioarteko eta Europako beste erakunde batzuen nazioarteko deiei laguntzen eta erantzuten jarraitzea, Mediterraneoko krisiak eragindako larrialdi humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko.

- Ekintza humanitarioaren arloan GLEAk laguntzen dituen ekintzen jarraipena egin, batez ere errefuxiatuei edo bidaiderik gabeko nahiz bidean doazen adingabeei laguntzeko direnena.
- Marokon lanbide-heziketako esperientzia pilotu bat identifikatzea eta inplementatzea (GLEA).
- MENA eta JENAen arloko lana koordinatzea.

4. Prebentziozko ekintzaren ardatza

Bake, justizia eta berdintasun behar gehien duten herrialdeetan jarduten duten proiektuak babestea eta garatzea da; proiektu horiek prebentziozko erantzun eta erantzun eraldatzailea eduki behar dute, eta zuzeneko kooperazio eta kolaborazio politiken bidez gauzatzen dira.

- Prebentzioaren eta gatazken konponketaren arloan ekimen berriak arretaz aztertzea, eta, hala bada-gokio, babestea.
- Eskubide sozialak (osasuna, hezkuntza, genero-berdintasuna, erregistroa, justizia, askatasun, parte-hartze eta abarren ingurukoak) non urratu han berreraikitzeke aukera ematen duten proiektuak bultzatzen jarraitzea. (GLEA).

5. Jarrera-ardatza

Bitan banatzen da: nazioartekoa, Eusko Jaurlaritzaren hitzak Europan eta nazioartean entzunaraztea, eta barnekoa, euskal gizartean bizikidetzakultura irekia sustatzea.

- Migrazioaren aldeko Euskal Itunaren berri jendartean zabaltzea, eta jendea atxikitzeke egin ahalak egitea.
- Migrazioaren, aniztasunaren eta nazioarteko babesaren arloko sentsibilizazio-foro, -jardunaldi edo -ekintzetan parte hartzea.
- Aniztasunaren, migrazioaren edo nazioarteko babesaren arloan hezkuntza-ekimenak bultzatzea.
- Kultura- eta erlijio-aniztasunaren inguruko ezagutza eta pedagogia lantzeke tokiko gida-eredua aurkezte eta zabaltzea herrietan.
- Atxiki gatazkaizkien Europako eta/edo nazioarteko sareetan parte hartzea.

6. Zeharkako kudeaketa-ardatza

- Erakundearteko mahai soziala finkatzea
- Beste erakunde batzuekin koordinazio estuan aritzea, hala nola Arartekoarekin eta Legebiltzarreke barne-taldearekin.